



MEMORIA 2017

DONOSTIA KULTURAKO
BAZKIDEAK



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

+ 100.000
pertsona



Urte amaieran Donostia Kulturak 100.000 bazkideen muga gainditu zuen, hau da 100.000 lagun baino gehiagok dute arretarako eta fidelizaziorako Donostia Kultura txartela. Kultur kontsumitzaile aktiboak zeintzuk diren zehaztea ahalbidetuko digun garbiketa prozesuaren zain (epe laburrean horri ekitea espero dugu), datuak adierazten digu bi donostiarretik edo bisitaritik batek duela DK txartela.

DK, Donostiako kultur kluba

Urte amaieran, 100.461 bazkide zituen Donostia Kulturak (% 77, donostiarrak), hots, DK txartela, zutenak, 2017an egindako 4.566 bazkide berriei esker. Horietatik, ia % 60 emakumeak dira, eta Amara da bazkide gehien dituen auzoa, % 19,12rekin, eta ondoren, Gros (% 13,95), Antigua-Ibaeta (% 11,34) eta Intxaurren (% 11,22) datoz.

Txartel horren bidez, helburu unibertsal bat bete nahi da: herritar


guztiei kulturara hurbiltzeko bidea erraztea; horren adibiderik onena udal liburutegiak dira (liburuak maileguan hartzeko identifikazioa eta abar), oso erabilera handia baitute. Horrez gainera, ikus-entzuleria fidelizatu nahi da, programazio artistikoaren bidez. Beste horrenbeste esan daiteke San Telmo Museoaz eta Victoria Eugenia Antzokiaz, Antzoki Zaharraz, Imanol Larzabal aretoaz, Intxaurren, Larratxoaz eta Gazteszenaz: DK txartela dute horiek guztiek tresnarik onena bazkideei

informazio hautatua, deskontuak eta zozketak eskaintzeko.

Abantaila guztiak daude ikusgai bazkideen online atalean, zeinaren xedea abantaila gehiago eskaintzea baita, eta 17.000 lagun daude guztira online erregistratuta.

Hona hemen Donostia Kulturako bazkideen mapa, gaur egun:


Bazkideak udalerriaren arabera:





DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

Bazkide donostiarrak: auzoka




Guztira 78.040



DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK


Bazkideak adin-tarteen arabera:

14-29 urte




13.658

30-44 urte




33.090

45-64 urte




37.302

+65 urte



16.411


Bazkideak sexuaren arabera:



60.027
emakumezkoak



40.434
gizonezkoak






DONOSTIA KULTURAKO BAZKIDEAK

Bazkideen garapera 2007-2017:

Urtero izena emandako bazkide berriak:



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan:

